

ELKARTEAK

Lau bazkide izango gara gure enpresan (Nagore, Lorena, Dara eta Joane) eta bakoitzak ondo jarduten duen arloan lan egingo du.

- **Nagorek** kontabilitate arloan jardungo du eta era berean, ogasunarekin zerikusia duenarekin.
- **Dara** gazteekin eta era berean haien gurasoekin zerikusia duenarekin arituko da. Harreman publikoetan arituko da, eta publizitatea eramango du.
- **Lorenak** gazteekin bidaietara joango da. Adin gutxikoak gehiago kontrolatuko ditu; hau da, beraiekin joango da hegazkinean eta egingo diren jardueretan haiekin egongo da. Baina helduek, berriz, askatasun handiagoa edukiko dute arlo honetan.
- **Joanek** ekintza guztiak orokorrean ondo kudeatu diren gainbegiratuko du eta beste enpresekin erlazioak landuko ditu.



Nazioarteko merkatua ondo ezagutzen ez dugunez, herrialde batean finkatu aurretik, bertako enpresekin harremanetan jarriko gara, herrialde horretako merkatu-egoera ezagutzeko eta elkarren artean ezagutzak elkartrukatzeko. Adibidez, albergeekin, hoteleekin, tokiko turismo agentziekin...